

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

- 2669** *Hutsen zuzenketa, honako lege honena: 28/2014 Legea, azaroaren 27koa, hainbat lege aldatzen duena. Lege horren bidez aldatutako legeak: 37/1992 Legea, abenduaren 28koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergarena; 20/1991 Legea, ekainaren 7koa, Kanariar Uharteetako Zerga Araubide Ekonomikoaren zerga alderdiak aldatzen dituena; 38/1992 Legea, abenduaren 28koa, Zerga Bereziarena; eta 16/2013 Legea, urriaren 29koa, Ingurumen-fiskalitateari buruzko zenbait neurri ezarri eta beste zerga- eta finantza-neurri batzuk hartzen dituena.*

Hutsa atzeman da azaroaren 27ko 28/2014 Legean, zeinek honako lege hauek aldatzen dituen: 37/1992 Legea, abenduaren 28koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergarena; 20/1991 Legea, ekainaren 7koa, Kanariar Uharteetako Zerga Araubide Ekonomikoaren zerga alderdiak aldatzen dituena; 38/1992 Legea, abenduaren 28koa, Zerga Bereziarena; eta 16/2013 Legea, urriaren 29koa, Ingurumen-fiskalitateari buruzko zenbait neurri ezarri eta beste zerga- eta finantza-neurri batzuk hartzen dituena. Lege hori Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2014ko azaroaren 28ko alean (288. zenbakia) argitaratu zen, eta honen bidez, zuzenketa hau egiten da:

59. orrialdean, azken xedapenetako bosgarrenean, hau dioen lekuan: «c) Bigarren artikuluko hamaseigarren, hamazazpigarren, hemezortzigarren eta hemeretzigarren paragrafoetan xedatutakoak...», honako hau esan behar du: «c) Bigarren artikuluko hamazazpigarren, hemezortzigarren, hemeretzigarren eta hogeigarren paragrafoetan xedatutakoak...».